

# Udalen berrikuntzarako eta kudeaketa

## HOBETZEKO PROGRAMA

**EUDELeK eta IVAPek Tokiko Zuzendaritza Publikoari buruzko Programa bat jarri zuten abian duela ia hamar urte. Urtero-urtero egin izan da, eta formatu desberdinak izan ditu: batzuetan ikuspegi orokorrak jorratu izan dira, eta beste batzuetan, berriz, tokiko zuzendaritza publikoaren eremu espezifikoa sartu da. Programa horiei esker EAEko udaletako zuzendari eta kudeatzaile publiko ugari prestatu da, bai eta, halaber, bere garaian prestakuntza eskatu zuten toki-ordezkariei asko ere.**

**E**rrealitate hori eta orain arte pilatutako esperientzia abiaburu hartuta, EUDELeK eta IVAPek programa hori berriz ere orientatzea erabaki dute, ikuspegia 2016ko edizioan jarrita, eta, horrenbestez, hasierako planteamendua berrantolatu dute bi ikuspegi jasotzeko:

Alde batetik, bi hartzaile mota biltzea du helburu programak: udaletako teknikariak eta politikariak, hau da, zuzendari edo teknikari-taldeek eta politikariek osatutako taldeei zuzenduta egongo da programa. Egia esan, programaren asmoa da EAEko udaletan politika eta kudeaketa bat etor daitezen ahalegintzea, tokiko politika publikoen diseinua eta gauzatzea eta udal-antolaketaren funtzionamendua askoz ere egokiagoak izan daitezen. Asmoa da hausnarketa partekatze eremu komun bat eta ikuspegi politikoaren eta tekniko-zuzendaritzakoaren arteko distantziak saihestuko dituen hizkuntza sortzea, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea areagotzeko.



Helburu hori lortzeko, bi alor horietako pertsonen (politikariak eta zuzendari edo teknikariak) osatutako taldeak proposatzen dituzten udalen eskaerak bakarrik onartuko dira programan parte hartzeko, eta, gehienez ere, lau kide erakundeko. Prestakuntza komun horrek, zalantzarik gabe, erabaki politikoak hartzen eta erabaki horiek abian jartzen lagunduko die parte hartzen duten udalei.

Beste alde batetik, agintaldi honetako (2015-2019) tokiko agenda politikoaren gai garrantzitsuenetan jarriko du arreta programak, bai, behintzat, zeharkako ikuspegi batetik. Asmoa da EAEko tokiko gobernuei, edozer tamainatakoak izanda ere, transformazioaren, berrikuntzaren eta aldaketaren kultura sorraraztea, tokiko

erakundeak hobetzeko eta herritarrei kalitate hobea duten zerbitzuak emateko.

Planteamendu horretatik gaur-gaurko gaiak eta epe ertainera erronka izango diren beste asko aztertuko dira. Lehenengoen artekoak dira, esate baterako, integritate instituzionala, gardentasuna eta herritarren partaidetza. Bigarrenengoen atalekoak, berriz, pertsonen kudeaketa eta antolaketa eta antolaketa-berrikuntza. Horri guztiari tokiko erakundeen finantza-jasangarritasuna gehitu behar zaio, behar objektibo bat delako; izan ere, ezinbesteko premisa bat da, gaur egun, politika eta toki-kudeaketa egiteko.



# PROGRAMA

## SAIOEN FORMATUA

Programaren barruko aurrez aurreko saioak goizeko **9:00etatik eguerdiko 14:00etara izango dira** (5 ordu). Horretaz gain, beste 40 ordu ere aurreikusten dira kanpo-lanerako.

Egiaztagirian, **70 orduko** prestakuntza izan dela jasoko da.

Aurrez aurreko saioak Bilbon egingo dira, **EUDELen egoitzan** (Zabalguneko plaza, 5).

## HARTZAILEAK

- Alkateak eta udal gobernu-taldeko zinegotziak.
- Estatuko gaikuntza duten funtzionarioak.
- Udaletako zuzendariak.
- Programaren xede diren zeharkako alorretako ardura duten udal teknikariak.

Ikastaroa politikariek eta teknikari-zuzendariek elkarrekin egingo dutela adierazten duten udalen izen emateak soilik onartuko dira; udal edo toki-erakunde bakoitzeko, gehienez ere, lau kidek eman dezakete izena

## HELBURUA

Programaren amaieran, parte hartu dutenek saioetako batean landu duten gai baten inguruko proiektu edo jardunbide on bat aurkeztu beharko dute.

## IZEN-EMATEAK ETA MATRIKULA

Programa honetan izena emateko, IVAPek daukan "prestakuntza-jardueretarako eskabidea" bete behar

da (honekin batera doa). Parte hartu nahi duen udal bakoitzak inprimaki bat bete behar du, lantaldea zein izango den adierazita.

Behin "bidali/enviar" sakatuta, datuak IVAPera iritsiko dira automatikoki. Automatikoki bidaltzean arazorik sortuz gero, honako helbide honetara bidali behar da betetako inprimakia: [prestakuntza@ivap.eus](mailto:prestakuntza@ivap.eus)

Izena emateko epea **urriaren 14an** bukatuko da.

**Prezioa:** 400€ udal bakoitzeko.

## EBALUAZIOA

"Helburua" atalean adierazi den bezala, udaletako lantaldeek, programaren saio guztiak bukatzen dituztenean, udaleko eremu bati aplikatutako hobekuntza-lan edo -proiektu bat aurkeztu behar dute, zeinak programaren barruan emango diren sei gaietako batekin erlazionaturik egon behar duen.

**2017ko martxoaren 31n** lanak aurkezteko saio bat izango da.

## ZIURTAGIRIA

Titulua lortzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Gutxienez, Programaren ordu guztien **%80ra joatea**.
- **Lan edo proiektu bat egin eta aurkeztea.** Helburua izango da udalean abian jartzea. Programa aurkeztuko den saioan emango da proiektua nola egin jakiteko metodologia-ildoen berri. Lan hori **ebalatu egingo da**, eta EGOKIA edo EZ EGOKIA kalifikazioa emango zaio.
- **IVAPek** langile publikoei bidaliko dizkie ziurtagiriak. Programan parte hartuko duten politikariei, berriz, **EUDELe**k emango dizkie ziurtagiriak.

## 1. SAIOA. 2016ko azaroaren 4an, ostirala

---

**Gaia: Integritate instituzionala**

**Izenburua: "Jokabide-kodea eta osotasun instituzionalaren sistemak tokiko gobernuen eremuan"**

Hizlaria: Rafael Jiménez Asensio. *Sektore Publikoaren aholkularia*

## 2. SAIOA. 2016ko azaroaren 25ean, ostirala

---

**Gaia: Pertsonen kudeaketa, eta antolaketa**

**Izenburua: "Pertsonen kudeaketa eta garapena. Autoebaluazioa eta plangintza. Gaitasunen araberako kudeaketa; jarduera, errendimendua eta karrera horizontala ebaluatzea"**

Hizlaria: José Vicente Cortés Carreres. *Valentziako Udaleko Antolaketa Berrikuntzaren eta Pertsonen Kudeaketaren alorreko teknikaria eta koordinatzaile nagusia*

## 3. SAIOA. 2016ko abenduaren 16an, ostirala

---

**Gaia: Gardentasuna**

**Izenburua: "Gardentasuna: erronka bat eta aukera bat"**

Hizlaria: José Antonio Fernández Celada. *Ermuko Udaleko idazkaria*

## 4. SAIOA. 2017ko urtarrilaren 13an, ostirala

---

**Gaia: Partaidetza**

**Izenburua: "Zeharkakotasuna eta herritarren partaidetza udal kudeaketan: kontzeptutik praktikara"**

Hizlaria: José Luis Pérez Gómez (Kotelo).  
*Gasteizko Udaleko Partaidetzako, Gardentasuneko eta Gizarte Etxeetako zuzendaria*

## 5. SAIOA. 2017ko otsailaren 3an, ostirala

---

**Gaia: Antolaketa-berrikuntza**

**Izenburua: "Berrikuntza publikoa: balio publikoa sortzeko berehalako aukerak"**

Hizlaria: Fermín Cerezo Peco. *Valentziako Diputazioko Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Ataleko burua*

## 6. SAIOA. 2017ko otsailaren 24an, ostirala

---

**Gaia: Aurrekontu-esparrua**

**Izenburua: "Aurrekontu-plangintzarako teknikak: lege-betekizunak, hainbat urtetarako ebaluazioa eta jarraipena, likidazioa eta kontrola, eta adierazleen analisia"**

Hizlaria: Alfredo Barrio Gil. *Gasteizko Udaleko kontu-hartzailea*

---

***Ebaluazioa:***

**2017ko martxoaren 31n. Egindako lanak aurkeztu behar dira.**